

FAMILIENTZAKO AHOLKU BALIAGARRIAK

12. aholkua. Interneteko irudiak.

1. Duela denbora asko, Facebookek iragarri zuen egunero gutxi gorabehera 250 milioi argazki gordetzen dituela bere zerbitzarietan. Interneteko erabiltzaileek etengabe jartzen dituzte argazkiak sarean. Azkar, erraz, eroso eta modu eraginkorrean jartzen dituzte, batez ere sare sozialetan.
2. Helduok kontuan hartu behar dugu geu garela jartzen ditugun adingabeen (seme-alaben, iloben...) argazkien erantzuleak. Esposizio hori ahalik eta gehiena atzeratzea lagungarria izan daiteke argazki horien gainean izan dezakegun kontrolerako. Hona hemen kontuan hartu beharreko oinarritzko gomendio bat: saiatu Interneten ez jartzen geure burua edo seme-alabena konpromisoan jar dezakeen materialik.
3. Adingabeek sare sozialetan egiten duten erabilera oso lotuta dago gaztea izatearekin. Gazteak, berez, pertsona oldarkorrak dira. Esposizio handian egoteko gogoia dute, baita une bakoitzean zer egiten ari diren jakiteko eta erakusteko beharra ere, eta arriskuaren pertzepzio txikiagoa dute. Beraz, sare sozialetan jartzen den informazioa behar bezala kudeatzen irakatsi behar zaie.
4. Erraza da tresna digitaletara (smartphoneak, tabletak, ordenagailu eramangarriak...) sartzea, eta gero eta pertsona gazteagoak hasten dira erabiltzen. Gure seme-alabek lehenik eta behin jakin behar dute Interneten jartzen duten guztia Interneten geratuko dela. Interneten dauden argazkiak ezin dira kontrolatu, eta ia ezinezkoa da behin betiko ezabatzea.
5. Erakusteko eta beste gazteei gustatzeko beharra dutenez, ohikoa da sare sozialetan edo mezuen bestelako sistemen bidez (adibidez, WhatsAppen bidez) argazki konprometituak agertzea. Sexting-a (sexuarekin loturiko edukia duten argazkiak sarean jartzean datza) ohikoa da gazteen artean (eta gero eta ohikoagoa helduen artean). Igortzeko botoiari ematen diogun momentuan, begi-bistakoa da argazki horien gainean kontrol-falta dugula. Askotan, beste pertsona batzuen eskuetara iristen dira, eta interesdunaren baimenik gabe zabaltzen dituzte.
6. Edozein argazki deskargatu daiteke Internetetik. Nahiko erraza da deskargatzea, argazki batzuk deskargatzeko babestuta egon arren. Beraz, erraza da norbaitek beste leku batean argitaratzea Interneten jarri dugun argazkia.
7. Sarean edozein irudi (argazkiak edo bideoak) jartzeko, beharrezkoa da aurretiaz horietan agertzen diren pertsonen baimena izatea. Pertsona guztiek dute datu pertsonalak kontrolatu ahal izateko eta horien inguruan erabakiak hartzeko eskubidea. Garrantzitsua da gure seme-alabei erakustea argazkiak sarean jarri edo partekatu aurretik argazki horietan agertzen diren pertsona guztien baimena izan behar dutela.
8. Argazkiak datu pertsonaltzat jotzen dira. Beraz, datu pertsonal gisa kudeatzen ikasi beharko genuke.
9. Sare sozialetako profilen argazkietan, datu pertsonalak erakustea beharrezkoa ez den bezala, ez da beharrezkoa argazki pertsonalik jartzea. Gehiegizko esposiziorik izan gabe ere, posible da sare sozialez gozatzea.
10. Irudiak tratatzeko eta muntatzeko programak dibertigarriak eta hezigarriak izan daitezke, baina, era berean, asmo txarrez erabiltzen badira, kaltegarriak izan daitezke biktimarentzat. Garrantzitsua da gure seme-alabek barneratzea aplikazioak eraikitzekeo tresnak direla, eta ez suntsitzeko tresnak.